

EKONOMIA ETA LEHIAKORTASUN MINISTERIOAREN 2018ko DEIALDIA

ZAGUTZAREN SORRERARAKO ETA I+G+B SISTEMAREN INDARTZE ZIENTIFIKO ETA
TEKNOLOGIKORAKO ESTATUKO PROGRAMARI LAGUNTZAK

Dinamizazio ekintzak. "Ikerketa sareak"

Eskabideak aurkezteko epea 2018-02-12tik 2018-03-05era

ESKAERA FORMULARIOA (kontuan hartzekoak)

**Eskaera
formulario
elektronikoa
(15 art.)**

Eskaera egiteko orri elektronikoarekin batera sare koordinatzaileak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu **nahitaez, ez baita zuzen litekeen edukia:**

- ✓ Sarearen memoria zientifiko teknikoa, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren web orrialdean eskuragarri dagoen ereduaren arabera. Adierazitako edukia, luzera eta formatua erabili beharko dira:
 - Ingelesez edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da.
 - Times New Roman edo Arial letra, gutxienez 11 puntukoa.
 - 2,5 cm-ko albo marjinak.
 - 1,5 cm-ko goi eta behe marjinak.
 - Gutxieneko tarte sinpleak.
 - M Gutxienez 10 orrialde C atalean ("Dokumentu zientifiko")
- ✓ Sare koordinatzailearen curriculum laburra (CVA), Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren web orrialdean eskuragarri dagoen ereduaren arabera: Ingelesez edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da.
 - Times New Roman edo Arial letra, gutxienez 11 puntukoa.
 - 2,5 cm-ko albo marjinak.
 - 1,5 cm-ko goi eta behe marjinak.
 - Gutxieneko tarte sinpleak.
 - Gehienez 4 orri.

**Dokumentazio
gehigarria
(15 art.)**

Sare koordinatzaileak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- ✓ Ikerketa taldeko kideen curriculum laburra, web orriko ereduaren arabera: (baita ere FECYTEko orriladekoa)
 - Ingelesez edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango da.
 - Times New Roman edo Arial letra, gutxienez 11 puntukoa.
 - 2,5 cm-ko albo marjinak.
 - 1,5 cm-ko goi eta behe marjinak.
 - Gutxieneko tarte sinpleak.
 - Gehienez 4 orri.

ESKAERAK AURKEZTEA

**1. IKERKETA TALDEEK ETA PROIEKTUEN LANTALDEEK BALDINTZAK BETETZEN
DITUZTELA EGIAZTATZEA**

Egiaztapen hau nahitaezkoa da ikertzaile nagusiek, ikerketa taldeetako kideek eta lantaldeetako kideek deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

Beraz, Ikerketaren arloko Errektoreordearen sinadura lortzeko sare koordinatzaileak **2019ko otsailaren 26a baino lehen, I. Eranskina** bete behar da eta mezu elektronikoz bidaliko du convocatorias.dgi@ehu.es helbidera (Ikerketaren arloko Errektoretzaren webgunean eskura daiteke eranskina). Hortik aurrera, arazoren bat egon ezkerro teknikari bat jarriko da harremanetan INrekin. I. Eranskin hori bidali ezean edo eskaeran egin beharreko aldaketak bertan zehaztu ezean, Ikerketaren arloko Errektordetzak ez du eskaera sinatuko eta, ondorioz, ez da deialdian aurkeztutzat joko.

2. ESKAERAK FORMALKI AURKEZTEA IKERKETA, GARAPEN ETA BERRIKUNTZAKO ESTATU IDAZKARITZAREN WEB ORRIALDEAN

Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira, eskaeraren eta sinadura elektronikoen bitartez (Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatu Idazkaritzaren egoitza elektronikoa eskura daitezke):

Eskaera bete eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzak adierazitako aldaketak zehaztu ondoren, baliozkotu eta telematikoki bidali behar da.

Jarraian, aplikazioak automatikoki sortzen duen dokumentua inprimatu beharko da, sare koordinatzailearen eta ikerketa taldeko kideen sinadura orijinalak bertan jasotzeko; gero, **barne postaz bidaliko da** Ikerketaren arloko Errektoreordetzara, **adierazitako dokumentazioarekin batera**. Dokumentazio hori bera **e-mailez ere** igorri behar da, pdf formatuan, convocatorias.dgi@ehu.es helbide elektronikora.

Hortaz, **2019ko otsailaren 28a baino lehen**, Ikerketaren arloko Errektoreordetzara ondorengo z dokumentazioa bidali beharko du convocatorias.dgi@ehu.es helbide elektronikora eta baarne postaz:

- **Eskaera** ikerketa taldeak sinatuta
- Bestelako entitateen partaideen kasuan euren entitatearen **baimena proiektuan parte hartzeko**

Dokumentazio originala barneko posta bidez bidaliko da helbide honetara (ez erregistroaren bitartez):

Ikerketaren Arloko Errektoreordetza
Deialdien Atala
Leioako Campuseko Errektoretza
Sarriena auzoa, zk.g.
48940 Leioa

INFORMAZIO GEHIAGO

Hauek dira eskaera betetzeko beharrezkoak diren UPV/EHUren datuak:

➤ **IFK:** Q4818001B

- **Helbide soziala:** Sarriena auzoa, zk.g.
- **Posta kodea:** 48940
- **Herria:** Leioa
- **Legezko ordezkaria:** José Luis Martín González
- **Kargua:** Ikerketaren arloko errektoreordea